

Txikienak altxor artean



Lorena Ciria

Aiora Madariaga

2006/07 Sehaskak

Sarrera:

Orrialde hauetan, **altxorren saskiaren** inguruan hainbat hitz eta argazki jaso nahi izan ditugu, dokumentazio gisa bildu asmoz eta gainbegirada bat eman nahi dionari gustura eskainiz.

Gai honen inguruan badago zer irakurririk eta atzealdean gehitu ditugu Infancian argitaratutako Elinor Goldschmied-en "El cesto de los tesoros" artikulua eta Tere Majem eta Pepa Ódenaren "Descubrir jugando" liburuaren fotokopiak. Gure intentzioa ordea ez da izan iadanik idatzita dagoenaren laburpen bat egitea, gure esperientzia jaso eta azaltzea baizik.

Altxorren saskia adin hauetarako oso proposamen polita eta aberatsa dela iruditzen zaigu eta egunero zaindu beharrekoa (haurrek material hauekin egiten dutena behatuz, materialak aldatzen joanez...).



Saskirako hautatu ditugun objektuak altxortzat izan ditugu guk ere lehen momentutik eta mimo hauek guztiak, gure txikiek ederki eskertu dituztela ziur gaude.

Proposamen honekin, ezagutzeko irrikitan dauden altxorren munduan barneratzea ahalbidetzen diegula ohartzea ezinbestekoa zaigu, orduan eskaini ahal izango baitiegu gure txikiei hezitzaile garen aldetik geure esku dugun aberastasun guztia.

Jakina dugunez, haurrak eserita ondo mantentzen direnean eta oraindik ere desplazamenduaren plazerra gailentzen ez denean, egin ohi diegun proposamen benetan polita dugu altxorren saskia.

8 bat zmtako altuera eta 35 bat zmtako diametroa duen zumitzezko saski bati egiten diogu erreferentzia. Hitzak berak dioen bezala, ez da hutsik dagoen saski bat, euren zentzumen oro lantzeko aproposak diren hainbat eta hainbat objektuz beterikoa baizik. Plastikoa ekidin nahian, esperientzia sentsorial aberatsak eskainiko dizkieten material naturalak topatuko dituzte bertan. Normalean euren eskura egon ohi ez diren objektu arruntak direla esan dezakegu.



Sarreran aipatu bezala, azkar ekin genion gure aldetik geletan genituen saskiak egitan **altxorren** saski bihurtzeari, guk ere altxor kuttuntzat izan baititugu saskian hurrei eskaini dizkiegun objektuak.

Ilusio haundiz eta objektuen hautaketarako gure denbora eta arreta pozik eskainiz, saskia objektu erakargarriz osatzen saiatu gara. Gure etxeetako armairuak arakatu ditugu; zenbait toki edo egoeretan soberan erabilpenik gabe geratutako objektuei tokia egin diegu gure saskietan; gauza jakinen bila dendak ere bisitatu ditugu...

Haurrak oso-oso gustura ikusi ditugu proposamen honen aurrean, oso lasai eta **denbora luzean** aritu dira buru-belarri arreta osoa eskainiz objektuak esploratzeari. Guk ere asko gozatu dugu haurrei begira eta oso seguru eta eroso sentitu gara material honekin.




Momentu benetan lasaiak bizitu ditugu gelan behin eta berriz; bazkal ondorengo momentuak esaterako oso politak izan dira. Bazkal ondoren eta pardelak aldatu aurretik giro atsegin eta lasaian zeinen gustura egon garen!!!

Denok elkarrekin bizitutako momentuak izan dira, geu ere hor izan baikaituzte geure begirada, geure presentzia bilatu dutenean. Azken finean hori baino ez digute eskatzen txiki hauek euren aurkikuntzan gozatzeko jarrai dezaten. Eta guk trukean gainera, patxadaz euren inguruan, behaketa momentu horiek eskaintzen diguten guztiaz gozatu eta baliatzeko aukera dugu!

Gelan erabili dugu gehienbat baina kalean ere gozatu dugu saskiaz haizea hartzen genuen bitartean.

Gure aldetik, aipamen pare bat egin nahiko genituzke hausnarketa moduan: **Hartzen al dugu denborarik altxorren saskiari eskaintzeko (materialak aldatzeko, haurrak behatzeko...?). Zaintzen al ditugu aspektu hauek? Egitan merezi duen ardura eskainiko bagenio ez al litzateke egunerokotasunean antzemango (gelako lasaitasunean, haurrek jolasean duten jarreraren...)?**

Jakina da objektuen azterketa honetan, konzentratzeko gaitasun apartaz, soinu ugari ahozkatuz, gorputzeko giharrak dantzan jarriz eta behar duten denbora lasai hartuz, ekintza asko burutzen dituztela txiki hauek: begiratu, ukitu, txupatu, astindu, hartu-utzi, objektuak elkar kolpatu.... Miresgarria da objektuak zer nolako zehaztasunez eta patxadaz esploratzen dituzten ikustea, euren forma, testura, pisu, tamaina, usain... -ekin esperimentatuz.





Argi markatzen dituzte objektuen artean euren interesen arabera lehentasunak ere; ohikoa da esaterako esku banatan dituzten objektuen arteko aukeraketa... Iniziatiba osoz, maiteen dituzten altxorren bilaketa horretan irmo aritu ohi dira urrun egon arren gorputzaren mugimenduarekin saiakera politak eginez, bidean traban dauden horiek baztertuz, lagunak duen kasutan kentzen saiatuz...



Zoragarria da euren arteko lehen harreman horiek ikustea, askotan objektuen bueltan sortutakoak eta beste batzuetan zuzenean lagunarenganako interesean oinarritutakoak.



Saiatu gara gurasoak gai honen inguruan informatzen (guraso bileran saskia erakutsi eta zer den azalduz, artikuluak banatuz etxean irakurtzeko...). Gure esku dago proposamen polit honekin gozatzeko aukera ematea gurasoei ere. Batzuk asko harritu dira zer nolako objektuak eskaintzen dizkiegun ikusita baina egia esan ederki eskertu dutela esan behar, asko izan baitira etxean saskia osatzera animatu direnak. Altxorren saskiaren inguruan gure txikiei atera dizkiegun argazkiekin mural polit bat egitea dugu hurrengo helburua.

GURASOEK ZER DIOTE?

Gure esperientzia hau hasera batean lankideei begira egina genuen arren, ideia polita iruditu zitzaigun gurasoei irakurtzeko aukera eman eta euren hausnarketaren bat jasotzea. Horrela beraz, zenbait gurasok idatziz zerbait adierazi nahi izan ziguten, idaztera animatu ez zirenak ere oso eskerturik ikusi genituelarik egindako lanaren aurrean:

- **Jasotako iritzi batzuk:**

Naiaren gurasoak:

"Kaixo Aiora eta Lorena:

Es una maravillosa experiencia contemplar el desarrollo de Naia y sus pequeños logros diarios. El cesto de los tesoros ha sido una sorpresa para nosotr@s y la verdad es que a la txikitina le encanta tocar con sus manitas y probar con su boquita tantos objetos desconocidos. Sus grititos y sus gestos nos demuestran cuánto disfruta. Toda la familia estamos muy agradecidos a vosotras por el gran trabajo que realizáis y en especial Naia que nada más llegar al parking ya está sonriendo. Eskerrik asko."

Lieren gurasoak:

"(...) Objektu asko jarri izan dizkiogu beti Lierri baina inoiz ez gara ohartu altxorren saskia zenik. Bera gauza horiekin entretenitzen zen eta da, eta gu orain ari gara konturatzen objektu hauek aukeraketaz hartzen dituela eta ez hartzeagatik (...). Objektu asko egoten dira eta bere arreta deitzen dute; ikusteaz gain, ukitu, dastatu, usaitu, pisatu... ahal dituzte (...)"

Ekainen gurasoak:

"(...) Ideia hau, hau da, gurasoen iritzia jasotzearena, ona iruditzen zaigu, baina arnasa hartzeko ere denborarik gabe gabiltzanez, ezin fundamentuzko ekarpenik egin.

Saskiaren ideia polita iruditu zaigu erabiltzen ditugun jostailuez pentsarazten digulako. Egia da haurarentzat edozer dela jostailua eta gauza berriek bere arreta deitzen dutela. Horretaz gain, saskia beraren tamaina, sakonera, kokapena... datu horiek ere ongi etorri zaizkigu adin jakin bateko haurrek dituzten muga eta trebetasunez jabetzeko. Lan polita egin duzue eta prestatu duzuen liburuxka oso polita da. (...)"

Maialenen gurasoak:

"Kaixo Lorena eta Aiora:

¡Qué trabajo tan bonito! Nos ilusionó mucho ver a nuestra hija reflejada en el trabajo. Gracias por demostrarnos una vez más el trabajo que realizáis con nuestr@s hij@s: cómo se relacionan, lo tranquilos que están, sus nuevas experiencias, sus nuevos descubrimientos...

La verdad que gracias a vuestro trabajo nos podemos ir tranquilos a nuestros puestos de trabajo, ¡que no es poco!

Esperamos que vuestro trabajo se vea valorado por tod@s nosotr@s y que estéis disfrutando de nuestra chiquitina. Animo eta aurrera."



EGILEAK: AIORA MADARIAGA ETA LORENA CIRIA

OIARTZUNGO UDAL IKASTOLA PARTZUERGOKO

IRAKASLEAK

2006/07 IKASTURTEA